

20 urte ez dira alferrik pasatu

Hogei urte joan dira Ermuko gazte talde batek Euskal Birusa sortu eta lehenengo San Martin Azoka martxan jarri zuenetik. Argazkian ikus daitekeen hasierako talde hartan, beste batzuen artean gaur egun taloak egiten ibiltzen den Begoña Aginaga zegoen. “Orduan taldean zegoen Murtzi etorri zen azoka jartzeko proposamenarekin, Markinan egiten zen antzerira”, gogoratzen du Begoña Aginagak.

Taldekoek ez zuten pentsatzen Ermuan horrelako azoka batek arrakasta izango zuenik, ezta halako bat egiteko gaitasunik zutenik ere. Baina pentsatu eta egin! Ez lanik egin gabe or-

dea, azokak hasiera-hasieratik lan handia eman izan baitu.

Egungo San Martin plazan izan zen lehenengo hura, baina duela 20 urte jada txiki geratu zen plazatxoa, halako azoka bat egiteko. Bi urteren buruan Orbe Kardinalaren plazara lekuz aldatu zen. Ordutik fin-fin eta kale egin gabe, antolatzaileak azokako eskaintza handitzen eta hobetzen saiatzen dira urtero.

Euskal Birusak abian dituen bestelako ekintzek bezala, azoka euskal gune izateko sortu zen. Duela 20 urte, postu gutxiago jartzen ziren eta talo gutxiago egiten ziren, baina hasieratik lortu zuen azokak Ermuko jendea erakartzea. “Orduan



ez zegoen horrenbeste jende taldean eta ahoz aho lortzen genuen taloak egiteko jendea, ontziak etxetik ekartzen genituen, eta guztiek egiten genuen denetarik. Ikerne Arzuagak, azoka egunean bertan txorizoak egosten zegoela, eskuak koipez beterik txeke bat egin behar izan zuen norbaiti ordaintzeko. Zenbat halakoi!”, dio Aginagak. Denbora, ordea, ez da alferrik pasatu

eta gauzek hobera egin dute. Jende gazteagoak lekuko hartu du eta antolakuntzan aurrera egin da, baina gaur egun ere ezinbestekoa da ehundik gora laguntzaileen kolaborazioa egunean bertan, aurreko eta ondorengo egunetan.

Txerria galxotu

Duela lauzpabost urtera arte, goiz osoan egoten zen txerri eder bat plazan ikusgai eta horixe izaten zen gero zozketatzen zena. Begoña ezin du ahaztu, behin txerria hoztu eta gaixotu egin zela. Antolatzaileek igarri zioten txerriari belarriak hotzak zituela eta ez zela mugitzen. Albaitariari deitu eta ikuskatu ostean, txerriak pneumonia zuela esan zien. “Pentsa!, txerri hura handik kendu eta beste bat bilatu behar izan genuen zozketatzeko. Egin genituen gero barreak txerriaren kontura”.

Datorren azaroaren 14an, berriz ere benetako txerria egongo da, 20. urteurrena ospatzeko.

Alazne Aiestaran





Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA

“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta
Dietetikan Diplomatura

Komentukua 1, behea
943 17 63 72